



## 2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007

**Akta zenbakia:** 2/2007  
**Bilera data:** 2007-02-26  
**Bilera mota:** Ez ohiko osoko bilkura  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Ordua:** 16:30-17:00  
**Tokia:** Udaletxeko arcto nagusia

**Acta nº:** 2/2007  
**Fecha:** 26-02-2007  
**Tipo de reunión:** Pleno extraordinario  
**Convocatoria:** Primera  
**Hora:** 16:30 – 17:00  
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**  
**Alkatza:** Florentino Ugalde Atxaga

**Reunidos:**  
**Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga

**Zinegotziak:**  
 Maria Isabel Vaquero Montero  
 Jose Luis Aramendi Goikoetxea  
 Jose Maria Aldanondo Ugalde  
 Maria Angeles Iriondo Mugica  
 Gaspar Esnaola Agesta  
 Hermenegildo Gonzalez Moran  
 Consuelo Frutos González  
 Jose Guirado Novo  
 M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz  
 Juan Maria Tomasena Alzuri  
 M. Asuncion Guerra Alonso

**Concejales:**  
 Maria Isabel Vaquero Montero  
 José Luis Aramendi Goikoetxea  
 José Maria Aldanondo Ugalde  
 Maria Ángeles Iriondo Múgica  
 Gaspar Esnaola Agesta  
 Hermenegildo González Morán  
 Consuelo Frutos González  
 José Guirado Novo  
 M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua Ruiz  
 Juan Maria Tomasena Alzuri  
 M<sup>a</sup> Asuncion Guerra Alonso

**Etorri ez direnak:**  
 Jose Maria Mugica Heras

**Ausentes:**  
 José María Múgica Heras

**Bitarteko idazkaria:**  
 Nagore Alkorta Elorza

**Secretaria interina:**  
 Nagore Alkorta Elorza

### **Aztergaiak:**

1.- 2007ko urtarrilaren 31ko akta onestea, bidezkoa bada.

2.- Etxabeen eta etxe-lurretako eremu finkatuetako beste lokalen erabilera aldatzeko esku-hartzeak arautzen dituen ordenantza.

### **Orden del día:**

1.- Aprobación, si procede, del acta de 31 de enero de 2007.

2.- Ordenanza reguladora de las actuaciones tendentes a la modificación de uso de plantas bajas y otros locales en ámbitos consolidados de suelo urbano residencial.



## 2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007

- |  |  |
|--|--|
| 3.- Berrasoetako lur okupatuak administrazioaren kabuz berreskuratzeko espedientea abiaraztea. | 3.- Inicio de expediente de recuperación de oficina de los terrenos ocupados en la zona de Berrasoeta. |
| 4.- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Plan estrategikoa: 2007-2008.                         | 4.- Plan General de promoción del uso del euskera (plan estratégico: 2007-2008).                       |
| 5.- Bestelakoak.   | 5.- Otros.   |

### 1.- 2007ko urtarrilaren 31ko akta onestea, bidezkoa bada.

Alkateak adierazi du 2007ko urtarrilaren 31ko akta onartu behar dutela, eta horren inguruan inork ezer esatekorik ba ote duen galdetu du.

Juan M. Tomasenak hartu du hitza, eta esan du ñabardura bat egin nahi duela 18. orriko azkenurreko paragrafoa dela-eta: "*Juan Mari Tomasenak galdetu du zer gertatzen den Mikaelaenearekin, esan du urtebete pasatu dela eta ezin izan dutela ezer egin*". Adierazi du honako hau jarri beharko lukeela: "*eta ez dela ezer egin*". Azaldu du zer egin zen ez zekielako egin zuela galdera; beraz, ezin zuela baieztatu ezin egin izan zela ezer.

Adierazitako aldaketak onartu eta gero, udalbatzak aho batez onartu du 2007ko urtarrilaren 31ko udalbatzarreko akta.

### 1.- Aprobación, si procede, del acta de 31 de enero de 2007.

El alcalde ha presentado este punto señalando que hay que aprobar el acta de 31 de enero de 2007; asimismo, ha preguntado si alguien tiene algo que objetar respecto a este punto.

Toma la palabra Juan M<sup>a</sup> Tomasena para señalar que desea realizar una apreciación respecto al penúltimo párrafo de la página 18 donde se establece: "*Juan M<sup>a</sup> Tomasena pregunta qué pasa con Micaelaenea, señala que ya ha pasado un año sin que se haya podido hacer nada*". Señala que lo que debería poner es: "*sin que se haya hecho nada*". Indica que él planteó una pregunta porque desconocía qué se había hecho, por lo que no podría afirmar que no se ha podido hacer nada.

Aceptándose las modificaciones arriba señaladas, el Pleno ha aprobado de forma unánime el acta de la sesión plenaria celebrada el día 31 de enero de 2007.

*Urnietako Udala**Ayuntamiento de Urnieta**Supuzkoa*

## 2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007

**2.- Etxabeen eta etxe-lurretako eremu finkatuetakoa beste lokalen erabilera aldatzeko esku-hartzeak arautzen dituen ordenantza.**

Florentino Ugalde Atxaga alkate-presidenteak hartu du hitza, eta adierazi du gai hau mahai gainean utziko dutela, aldaketa batzuk egin baitizkiote espedienteari erantsi dioten planoari. Adierazi du informazio batzorde bat antolatuko duela aurkeztu diren kokaleku berrien berri emateko eta horien zergatia azaltzeko.

**3.- Berrasoetako lur okupatuak administrazioaren kabuz berreskuratzeko espedientea abiaraztea.**

Florentino Ugaldek hartu du hitza, eta adierazi du gai hau eztabaidatu zutela hirigintza batzordean, eta abian jarriko dutela lurra berreskuratzeko espedientea. Gero, Nagore Alkorta idazkariari eman dio hitza, horren berri eman dezan.

Idazkariak hartu du hitza, eta adierazi du 2007ko otsailaren 12an egindako informazio batzordean eman zela berreskuratzeko espediente horren berri, eta batzorde horretan azaldu bezala, Udalaren ondare ondasun diren lur batzuk okupatu direla. Adierazi du espedientea abiarazteko akordioa udalbatzak hartu behar duela; azaldu du lurra okupatu dituen pertsonari epe bat emango zaiola lurra uzteko eta hesia kentzeko, eta hala egiten ez badu, zilegi diren hertsatze neurriak hartuko direla.


**2.- Ordenanza reguladora de las actuaciones tendentes a la modificación de uso de plantas bajas y otros locales en ámbitos consolidados de suelo urbano residencial.**

Toma la palabra el alcalde-presidente, Florentino Ugalde Atxaga, para señalar que este tema se va a dejar sobre la mesa debido a que en el plano que se ha incorporado al expediente existen algunas modificaciones. Señala que se convocará una nueva comisión informativa para presentar las nuevas ubicaciones que se han presentado y para explicar el porqué de las mismas.

**3.- Inicio de expediente de recuperación de oficina de los terrenos ocupados en la zona de Berrasoeta.**

Toma la palabra Florentino Ugalde para señalar que este tema se trató en la comisión de urbanismo y que se va a poner en marcha el expediente de recuperación. Acto seguido cede la palabra a la secretaria Nagore Alkorta para dar cuenta del mismo.

Toma la palabra la secretaria para señalar que en la comisión informativa celebrada el día 12 de febrero de 2007 ya se dio cuenta de este expediente de recuperación y que tal y como se explicó en dicha comisión se han ocupado unos terrenos que son bienes patrimoniales del Ayuntamiento. Señala que el acuerdo de inicio de expediente lo tiene que adoptar el Pleno: explica que a la persona que ha ocupado los terrenos se le va a conceder un plazo para que proceda al desalojo de los mismos y retire el vallado y que de lo contrario se procederá a la adopción de los medios compulsorios procedentes.



## 2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007

Juan M. Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta adierazi du hainbat gogoeta egin nahi dituela horri buruz, berak duen informazioaren arabera.

Toma la palabra Juan M<sup>a</sup> Tomasena Alzuri para señalar que desea realizar algunas consideraciones respecto a este punto por la información que tiene.

Nagore Alkortak hartu du hitza, eta adierazi du Udalak ere badituela datu guztiak espedienteen, eta inork ikusi nahi badu egin dezakeela; adierazi du eskriturak eta akordioak dauzkatela.

Toma la palabra Nagore Alkorta para señalar que el Ayuntamiento también posee todos los datos en el expediente y que si alguien desea verlo puede hacerlo; indica que tienen las escrituras y los acuerdos.

Juan M. Tomasena hartu du hitza, eta adierazi du antza denez auzi hau 1991. urteko lagapen baten ondorio dela (idazkariak zehaztu du 92. urtekoa dela), non partikular batek 115.000 metro koadro eman zituen, baldintza hauekin: batetik, bera 40.000 metro koadroko esparruarekin gelditzea eta gainerakoa natur parke gisa izendatzea. Adierazi du ordutik igaro diren 15-16 urteetan ez dela egin ez bata eta ez bestea.

Toma la palabra Juan M<sup>a</sup> Tomasena para señalar que parece ser que este tema viene de la cesión en el año 91 (puntualiza la secretaria señalando que es en el año 92) en la que un particular realiza la cesión de 115.000 metros cuadrados estableciendo como condicionante, por un lado, el cerco de 40.000 metros cuadrados que se queda en propiedad y que el resto sea declarado como parque natural. Señala que en los 15-16 años que han pasado desde entonces, no se ha hecho ni lo uno ni lo otro.

Florentino Ugaldek hartu du hitza, eta galdetu du hori esaten al duen lurak okupatu dituenak egin duena zuritzeko.

Toma la palabra Florentino Ugalde para preguntar si eso es lo que dice el que ha ocupado los terrenos para justificar lo que ha hecho.

Juan M. Tomasena erantzun dio hori berak esaten duela, daukan informazioaren arabera.

Le contesta Juan M<sup>a</sup> Tomasena que eso es lo que dice él en razón de la información que tiene.

Florentino Ugaldek galdetu dio informazio hori hark eman ote dion, eta Juan M. Tomasena erantzun dio informazio hori bere baitakoa dela edo bere aholkulari batek emandakoa.

Le pregunta Florentino Ugalde si esa información se la ha dado él mismo, a lo que contesta Juan M<sup>a</sup> Tomasena, que esa información procede de él o de un asesor suyo.

Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta adierazi du lur horiekin ezer egin ahal izateko, lehenik Udalarenak izan behar dutela, gizon horrek ondo harrapatu baititu. Adierazi du ondo dagoela Juan M. Tomasena egindako gogoeta, baina 15 urte daramatzala horrekin.

Toma la palabra Hermenegildo González Morán para señalar que para poder proceder a hacer algo con esos terrenos, primero tendrán que ser del Ayuntamiento, porque ese hombre en cuestión los ha agarrado. Señala que está bien la observación realizada por Juan M<sup>a</sup> Tomasena pero que lleva 15 años con ello.



*Urnietuko Udala**Ayuntamiento de Urnietu**Gipuzkoa*

## 2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007

Juan M. Tomasenak hartu du hitza, eta adierazi du udalbatzar batean onartu zela 15.000 metro koadro horiek ematea, eta bai lurra eman zituenak eta bai Udalak konpromiso bat hartu zutela.

Toma la palabra Juan M<sup>a</sup> Tomasena para señalar que en un pleno del Ayuntamiento se aceptó la cesión de esos 115.000 metros cuadrados en la que tanto el que cedió los terrenos como el Ayuntamiento adquirieron un compromiso.

Florentino Ugaldek hartu du hitza, eta adierazi du parke gisa datorrela Udalaren ondasunen inbentarioan ere.

Toma la palabra Florentino Ugalde para señalar que en el Inventario de bienes del Ayuntamiento está recogido como parque.

Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta zehaztu du hain zuzen parke gisa zaintzen dela, eta beraiek, guztiaren gaintik, interes publikoaren alde egin behar dutela eta ez udal lurra okupatu dituen gizon horren interesen alde.

Toma la palabra Maribel Vaquero para puntualizar que de hecho se cuida como parque y que lo que ellos deben defender, ante todo, es el interés público y no los intereses del señor que ha ocupado unos terrenos municipales.

Juan M. Tomasenak hartu du hitza, eta adierazi du hartutako konpromisoa bete ote den begiratu beharko litzatekeela.

Toma la palabra Juan M<sup>a</sup> Tomasena para señalar que se tendría que mirar si se ha cumplido con el compromiso adquirido.

Florentino Ugaldek hartu du hitza, eta galdetu dio zer betekizuni buruz ari den.

Toma la palabra Florentino Ugalde para preguntarle a que se refiere que se debía cumplir.

Juan M. Tomasenak hartu du hitza, eta adierazi du zera esan nahi zuela, lurra eman dituenak lurra emateko baldintzaren bat jarri badu eta baldintza hori bete ez bada, lagapena juridikoki eginda jotzen den edo ez.


Toma la palabra Juan M<sup>a</sup> Tomasena para señalar que se refiere a que si el que cede el terreno establece una condición para la cesión y esa condición no se cumple se da por realizada o no la cesión jurídicamente.

Florentino Ugaldek hartu du hitza, eta galdetu du nonbait agertzen ote den lur horiek parke ez direnik; izan ere, udal inbentarioan parke gisa ageri dira.

Toma la palabra Florentino Ugalde para preguntar si en algún sitio figura que esos terrenos no sean parque porque, señala, que en el inventario municipal está recogido como parque.

Juan M. Tomasenak azaldu du natur parke gisa jasota egon izan balitz Aldundiak ez zituela natur parke horretako lurra obrak egiteko desjabetuko.

Continua con la exposición Juan M<sup>a</sup> Tomasena señalando que si está recogido como parque natural la Diputación no hubiera expropiado terrenos de un parque natural para realizar las obras.



## 2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007

Florentino Ugaldek hartu du hitza, eta galdetu du nor desjabetu duen Aldundiak. Adierazi du Udala desjabetu duela. Esan du kasualitate handia dela lurrak okupatu dituenak esatea berea dela ezpondatik gora eta hormigoizko bidetik behera dagoen Elorriagarako sarbidea. Adierazi du ez dela hala ageri haren jabetzari buruz eskatu zitzaion planoan, 2003an aurkeztu zuen horretan.

Toma la palabra Florentino Ugalde para preguntar a quién le ha expropiado Diputación. Señala que a quien se le ha expropiado ha sido al Ayuntamiento. Manifiesta que es mucha casualidad que el que ha ocupado los terrenos diga que del talud para arriba y del camino de hormigón para abajo, el acceso a Elorriaga, es suyo. Señala que en el plano que se le solicitó sobre su propiedad y que presentó en el 2003 no aparece así.

Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du lur okupatu hori berreskuratu nahian dabiltzala.

Toma la palabra Hermenegildo González para señalar que lo que se está intentando es recuperar ese terreno ocupado.

Idazkariak hartu du hitza, eta adierazi du, 1992ko irailaren 24ko udalbatzarrean erabakitako lagapen eskrituraren arabera, Udalaren eskatu 115.000 metro koadro geratu zirela. Adierazi du ondasunen inbentarioan natur parke gisa ageri direla 115.000 metro koadro horiek, eta Francisco Aramburuk okupatutako udal lur horiek administrazioaren kabuz berreskuratzeko espedientea abiaraziko dela.

Toma la palabra la secretaria para señalar que por la escritura de cesión que se acordó en el Pleno de 24 de septiembre de 1992 quedaron en manos del Ayuntamiento 115.000 metros cuadrados. Señala que en el inventario de los bienes, esos 115.000 metros cuadrados aparecen como parque natural. Señala que se dará inicio al expediente de recuperación de oficio de los terrenos municipales ocupados por D.Francisco Aramburu.

#### **4.- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Plan estrategikoa: 2007-2008.**

Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du gai honi buruz hitz egin zutela euskara batzordean, eta hor eztabaida txiki bat izan zela plana Euskararen Legearen kontra ote doan. Adierazi duenez, Eusko Jaurlaritzan kontsultatu dute, eta ezetz erantzun diete; areago, horri buruzko jurisprudenzia badagoela esan diete. Adierazi du, horrenbestez, markatutako planarekin jarraituko dutela.

#### **4.- Plan General de promoción del uso del euskera (plan estratégico: 2007-2008).**

Toma la palabra Maribel Vaquero señalando que este tema se trató en la comisión de euskara y que en la misma hubo una pequeña discusión sobre si iba en contra de la ley del euskara. Señala que lo han consultado en el Gobierno Vasco y que le han contestado que no y que, de hecho, existe jurisprudencia en ese sentido. Señala que por ello, van a seguir con el plan marcado.

M. Asuncion Guerra Alonsok hartu du hitza, eta galdetu du erantzuna ematerik ba ote duten.

Toma la palabra M<sup>a</sup> Asunción Guerra Alonso para preguntar si se les podría aportar la respuesta.



## 2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007

Maribel Vaquerok erantzun dio ahoz erantzun dietela, eta idatzizkoa jasotzerako egun batzuk pasatuko direla.

Juan M. Tomasena hartu du hitza, eta galdetu du Eusko Jaurlaritzak plan estrategikoa onzat jotzen ote duen.

Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du onzat ematen duela, Euskararen Legea eta Eusko Jaurlaritzaren Autonomia Estatutua betetzen dituela.

M. Teresa Pagazaurtundua hartu du hitza, eta adierazi du hainbat xehetasun egin nahi dituztela. gai hori modu orokorrean azaldu zitzaizkion balorazio batzuk egiteko eskatu zitzaizkion. Adierazi du balorazio horiek egitean, nahiz eta neurri gehienak euskara sustatzeko izan, hiru ekintza dudazkoak iruditu zaizkiela, Euskara Normalizatzeko Legea eta Autonomia Estatutua betetzen ote duten alegia. Adierazi du horietako batzuek hizkuntzaren baldintza jartzen zirela Urnietako Udalaren edo administrazio publikoaren diru laguntzaren bat lortu nahi zuten kultur elkartei eta halakoei. Adierazi du oraindik ere zalantza bera dutela, alegia bi hizkuntza ofizialak diren erregimen batean administratuek hizkuntza eskubideak dituztela baina ez dutela hizkuntza betebeharririk, eta ez Autonomia Estatutuak eta ez Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legeak ez diotela herritarri inolako betebeharririk ezartzen obligazio finkatuz haraindi; adierazi du betebeharririk ez zuten administrazioaren parte izatean, administrazioaren zerbitzura lan egitean bete behar diren horiez ari dela, betiere ikuspegi arautu batetik. Adierazi du, hori horrela izanda, nahiz eta mankomunitateko eta toki askotako eguneroko praktikan eskuarki hizkuntza aldeko baldintzaren bat jartzen zaien diru laguntzaren bat lortu nahi duten herritar horiei, beraiek kontrako iritzia dutela; izan ere, oso ondo iruditzen zaie iradokitzea eta elkarte horietako herritarrek Udalarekin ondo geratu

Le contesta Maribel Vaquero que la respuesta se ha obtenido de forma oral y que por escrito tardará unos días.

Toma la palabra Juan M<sup>a</sup> Tomasena para preguntar si el Gobierno Vasco da por bueno el plan estratégico.

Toma la palabra Maribel Vaquero para señalar que lo da por bueno, que respeta la ley del euskara y el Estatuto de Autonomía del País Vasco.

Toma la palabra M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua para señalar que desean realizar una serie de puntualizaciones porque cuando se les informó del tema de forma general les pidieron que hicieran unas valoraciones. Señala que al realizar dichas valoraciones han encontrado que, si bien la mayoría de las medidas son del orden de la promoción del euskara, hay 3 acciones que les parecen dudosas en el sentido del cumplimiento de la ley de normalización del euskara y del Estatuto de Autonomía. Señala que algunas de ellas establecían condiciones lingüísticas a las asociaciones culturales y etc. que quisieran obtener algún tipo de subvención con respecto a la administración pública o municipal de Urnieta. Señala que la duda sigue siendo que en un régimen de cooficialidad lingüística los administrados tienen derechos lingüísticos pero que no tienen obligaciones lingüísticas y que ni el Estatuto de Autonomía ni la Ley de normalización del uso del euskara establecen ningún tipo de obligación al ciudadano más allá de obligaciones tasadas; señala que cuando habla de obligaciones tasadas se refiere a tasadas en el sentido de cuando uno forma parte de la administración, trabaja al servicio de la administración y siempre desde un punto de vista regulado. Señala que siendo esto así, aunque en la práctica cotidiana en la mancomunidad y en muchos lugares, habitualmente se establece algún tipo de condicionamiento lingüístico a esos ciudadanos que quieren obtener una



**2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007**

nahi badute jakitea Udalak nahiago duela hizkuntza aldeko betekizun batzuk izatea, baina iruditzen zaie ezin behartu ditzaketela. Adierazi du ohiko praktika izanda ere haien ustez oraingo Legeak eta Autonomia Estatutuak ezartzen dutena gainditzen duela horrek, eta beste gauza bat dela ohiko praktika bat izatea eta euskararen erabilera normalizatzeko teknikariak eskuarki onartzea.

M. Teresa Pagazaurtundua adierazi du zalantzakoa iruditu zitzaizen beste ekintza bat Udalarentzat obrak eta zerbitzuak eman ditzaketen enpresei buruzko araubidea zela, baina ez herritarrei begira eman behar dituzten obra eta zerbitzuei dagokienez, baizik Administrazioarekin berarekin kontratuak egiteko, etab. Adierazi du haien iritziz jarduera jakin horretan koofizialtasun linguistikoaren araubidea ezartzen dela, eta administrazioak betebeharrak dituela administratuekin baina administratuek ez dutela hizkuntza bakarrean edo bitan komunikatzeko betebeharrak, baizik eta Administrazioarekin zein hizkuntza erabili nahi duten hauta dezaketela. Adierazi du, haien ustez, enpresei, euskaraz ez badakite, obligazio baten, gastu baten karga ezartzen zaiela kontratuak idazteko, etab. Esan du ekintza horiek ez zaizkiela iruditzen justifikatzeko modukoak, eta iruditzen zaiela ekintza asko egin daitezkeela, erabat legezkoak, eta oso araubide zabala eta oso aurrekontu zabala izan ditzaketela euskararen erabilera normalizatu eta sustatzeko, baina iruditzen zaiela arlo horretan irten egiten dela administrazioaren legeak arautzen duen esku-hartze eremutik, eta oraindik existitzen ez den araubide batean sartzen dela.

subvención, su valoración era negativa en el sentido de que les parece muy bien que se sugiera y que si los ciudadanos de esas asociaciones quieren quedar bien con el Ayuntamiento conozcan que el Ayuntamiento prefiere que exista una serie de cumplimientos desde el punto de vista lingüístico, pero que les parece que no se puede obligar. Señala que si bien es una práctica habitual, les parece que supera el régimen de lo que está ahora establecido en la Ley y en el Estatuto de Autonomía y que otra cosa es que sea una práctica cotidiana y aceptada comúnmente por los técnicos de normalización del uso del euskara.

Señala, M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua que otra de las acciones que observaron dudosa es la que se refiere al régimen de empresas que pueden dar obras y servicios para el Ayuntamiento pero no en cuando a presten obras y servicios hacia la ciudadanía sino en su relación con la propia Administración en la realización de contratos, etc. Señala que a ellos les parece que en esa actividad concreta rige el régimen de cooficialidad lingüística y que la administración tiene obligaciones con los administrados pero que los administrados no tienen obligación de comunicación monolingüe o bilingüe sino que pueden elegir la lengua que deseen utilizar con respecto a la Administración. Señala que les parece que es gravar a las empresas con una obligación, con un gasto si no conocen el euskara, a la hora de tener que redactar contratos y etc. Señala que esas actuaciones no les parecen justificables en el régimen de normalización o de promoción y que les parece que hay muchas actividades que se pueden hacer y que son absolutamente legales, un régimen muy amplio y un presupuesto muy amplio para la normalización y para la promoción del uso del euskara, pero que les parece que en ese campo se sale de lo que es la intervención regulada por ley de la administración y que se entra en una





## 2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007

Adierazi du zalantza horiek izanda, botazioa egin behar badute, abstenitu egingo direla; izan ere, neurri guztien artetik funtsezkoena ez izan arren, horietan pentsatzen dute, eta haiek hobetzeko eta iradokizunak ezartzeko eman zuten iritzia, eta ez betebeharrak ezartzeko.

Juan Mari Tomasenak hartu du hitza, eta adierazi du erabakia hartzeko gisa horretako zalantzak argitzeko eskatu zuela berak.

M. Asuncion Guerrak hartu du hitza, eta adierazi du beharrezko jotzen dutela datu guztiak izatea gaiari buruz erabakitzeko.

Juan M. Tomasenak hartu du berriz ere hitza, eta adierazi du gauza bat dela udal erakundearen aurreko lana, zuzeneko eta herritarrei begira ondoriorik ez duena, baina hori Udalarekin egin beharreko lanei buruzkoa dela.

M. Teresa Pagazaurtundua hartu du hitza, eta adierazi du lehengo egunean eta oraintxe egin berri duen adierazpenean enpresa Administrazioarekin harremanetan eta komunikazioan dagoen kasuaz ari dela soil-soilik, eta koofizialtasun erregimena dutela administrazioarekiko tratu horretan eta kontratuak aurkezteko eta abarretarako, eta legea aldatzen ez den bitartean eskubidea dutela papera euskaraz, gaztelaniaz edo bi hizkuntzetan jartzeko. Adierazi du ez dutela ahalmenik Administrazioarekin nola funtzionatu behar duten ezartzeko; esan du beste kontu bat dela hirugarren batzuei, administratuei eragiten dieten zerbitzuetan eragina izateagatik betebeharrak izatea. Adierazi du hori oso bestelako kontua dela, baina Administrazioaren eta negozioren bat egin nahi duten partikularren

regulación que todavía no existe.


Señala que siendo esas las dudas que se les plantean, si se va a proceder a realizar la votación, ellos se van a abstener ya que aunque no es lo esencial de todo el bloque de medidas, en esas ellos piensan y su valoración fue para que se mejorase y se estableciesen sugerencias pero no obligaciones.

Toma la palabra Juan María Tomasena para señalar que lo que se había solicitado en su momento era que para poder adoptar la decisión se esclareciese ese tipo de dudas.

Toma la palabra M<sup>a</sup> Asunción Guerra para señalar que ellos también consideran necesario disponer de todos los datos para poder decidir sobre el tema.

Retoma la palabra Juan María Tomasena para señalar que una cosa es un trabajo ante la institución municipal, directamente y que no tiene trascendencia de cara al público pero que esto trata de cara a trabajos con el Ayuntamiento.

Toma la palabra M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua para señalar que en la exposición que hizo el otro día y que acaba de realizar se refiere estrictamente a cuando la empresa está en relación y comunicación con la Administración y que en ese trato con la Administración y en la presentación de contratos y etc. tiene el régimen de la cooficialidad y que mientras no cambie la ley tiene derecho a poner el papel en euskara, en castellano o en bilingüe. Señala que no tienen la capacidad para imponerle cómo debe funcionar frente a la Administración; indica que otra cosa son las obligaciones derivadas de la prestación de servicios que influyan en terceros, en los administrados. Señala que esa es otra cosa muy distinta y que de lo que están hablando es, estrictamente, de lo que es la relación entre Administración y el particular que quiera hacer



## 2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007

arteko harremanaz ari direla hertsiki. Esan du harreman hori ez duela zuzentzen betebeharrak linguistikoa; bai, ordea, hirugarren batzuekin zerikusia duen gainerako guztia.

cualquier tipo de negocio; señala que en esa relación no rige la obligatoriedad lingüística y que en todo lo demás que tenga que ver con terceros sí.

Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du plana bozkatu egingo dutela, Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak planaren ildo bera dutelako, Administrazioarekin egiten diren kontratuei buruzko araudia Buruntzaldean onartuta dagoelako eta Urnietako Udalaren diru laguntzei buruzko araudia iaz onartu zutelako. Adierazi du plana erabat legezkoa dela, eta kontu hau argitu nahi duela, bi aldetatik: 1) Lege eta jurisprudentziaren bidea: Auzitegi Gorenak arrazoi ematen dio bide horri. Adierazi du salaketa bat jarri zutela Usurbilgo Udalaren kontra, eraikitzeko baimenaren zerga euskaraz eskatzen duten pertsonak diruz laguntzeko akordioa hartu zuela eta. Adierazi du Auzitegi Gorenaraino iritsi zirela, eta Udalarari arrazoi eman ziola. Gero, Auzitegi Gorenak dioena azaldu du: *"Berdin tratatu behar dira egoera berean dauden guztiak... Arauetako desberdintasunak diskriminatzaile ez izateko, ezinbestekoa da justifikazio objektibo eta arrazoiak bat izatea, oro har onartzen diren irizpide eta balio-judizioen arabera, eta, hori exijitzeko, ezarritako neurriaren helburu eta eraginak hartu behar dira kontuan; hori dela eta, hartutako neurrien eta lortu asmo den helburuaren artean arrazoiak proportzionaltasun lotura bat izan behar da... Eta hori hala izanik, zilegi eta proportzionatutzat jo behar da Konstituzioaren eta Estatutuaren arabera koofizialak diren hizkuntza espainoletako bat, nola baita euskara, erabilera eta hedapen aldetik nabarmen okerrago baitago, ... artikuluetan adierazten diren tasetarako diru laguntzak emanez sustatzea eta bultzatzea ..."*

Maribel Vaquerok adierazi du ez direla ari tasa baten diru laguntzaz ere.

Toma la palabra Maribel Vaquero para señalar que el Plan se va a someter a votación porque el Gobierno Vasco y Diputación lleva la misma línea del Plan, porque la normativa que existe para los contratos con la Administración está aprobada en Buruntzaldea, y porque la normativa de subvenciones del Ayuntamiento de Urnieta se aprobó el año pasado. Señala que el Plan es totalmente legal y que quiere aclarar este tema en dos direcciones: 1) Dirección legal y jurisprudencia: El Tribunal Supremo da la razón a esta línea. Señala que hay una denuncia en el Ayuntamiento de Usurbil por un acuerdo que tomó y por el que subvenciona aquellas personas que soliciten el impuesto de la licencia de construcción en euskara. Señala que se llegó hasta el Tribunal Supremo y que les dio la razón. A continuación expone lo que dice el Tribunal Supremo: *"hay que tratar de modo igual a todos aquellos que se encuentren en la misma situación..."* "diferenciaciones normativas, para que puedan considerarse no discriminatorias, resulta indispensable que exista una justificación objetiva y razonable de acuerdo con criterios y juicios de valor generalmente aceptados, cuya exigencia debe aplicarse en relación con la finalidad y efectos de la medida considerada, debiendo estar presente, por ello, una razonable relación de proporcionalidad entre los medios empleados y la finalidad perseguida...". "Y, siendo ello así, debe entenderse que resulta legítima y proporcionada la promoción o incentivación de uno de los idiomas españoles cooficiales según la Constitución y el Estatuto de Autonomía, como es el euskera, que se encuentra en su situación de evidente inferioridad en su utilización y difusión, a través de las subvenciones en las tasas a que se refieren los artículos... .."

Señala, Maribel Vaquero, que ni siquiera están hablando de dar una subvención en base a una tasa.



## 2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007

M. Teresa Pagazaurtundua hartu du hitza, eta esan du hori beste kasu bat dela.

Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du kasu hori areago doala, eta uste duela Administrazioak eska diezakeela eta eskatu behar duela irabazi asmorik gabeko elkarteei ematen dien diru laguntzetan elkarre horiek zabaldu behar duten mezua eta egin behar duten jarduera bi hizkuntza ofizialetan egitea, eta are euskaraz bakarrik egitea ere. Adierazi du horretarako ematen dela diru laguntza, eta horregatik dutela ordenantza bat eta ordenantza hori garatzen duen araudia. Adierazi du honako hau ezartzen dela: norbaitek diru laguntzaren bat lortu nahi badu, herritarrei begira betebeharrak hori hartu onartu beharko duela. Adierazi du gezurra dirudiela 2007. urtean gai horri buruz eztabaidatzea, eta 2007ko otsailaren 23ko GAOn argitaratutako artikulua bat aipatu du; hain zuzen, Donostiako Udalak (PSOEk agintzen du) honako hau ezarri baitu: "13. art.- Onuradunaren betebeharrak: m) Onuradunak diruz lagundutako idazkiak, iragarkiak, jakinarazpenak eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta zabaldu beharko ditu, era berean jokatu du publizitateari dagokionez, ahozkoan nahiz idatzizkoan. Bestalde, ekitaldietan megafonia bidez ematen diren mezuek euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko ditu. Diruz lagundutako jarduera gauzatu duela egiaztatzean, betebeharrak hau ere egiaztatu beharko du".

Maribel Vaquerok adierazi du hori ezartzen ari direla beraiek ere.

Esan du adierazi nahi zuen bigarren bidea moralaren ingurukoa dela, euskararen erabilerekin defentsarekin lotuta.

M. Teresa Pagazaurtundua hartu du hitza, eta adierazi du partikularrei iradoki ahal zaiela baina ez behartu.

Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du zalantzan jarri ziotela legezkoa zen edo ez, eta berak legezkoa dela erantzun diela, eta, gainera, arrazoitu egin duela.

Toma la palabra M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua para señalar que se trata de un caso distinto.

Toma la palabra Maribel Vaquero para señalar que este caso va algo más allá y que cree que la Administración puede y debe exigir en aquellas subvenciones que da a asociaciones sin ánimo de lucro, que la divulgación del mensaje y de la actividad que realiza esa asociación se realice en las dos lenguas oficiales, incluso únicamente en euskera.. Señala que para eso se subvenciona y que por eso tienen una ordenanza y una normativa que desarrolla esa ordenanza. Señala que lo que se establece es que si alguien quiere recibir una subvención deberá asumir esa obligación hacia la ciudadanía. Señala que le parece mentira que en el 2007 se esté discutiendo este tema y hace referencia a una publicación del BOG de fecha 23 de febrero de 2007 en la que el Ayuntamiento de San Sebastián (donde gobierna el PSOE) establece: "art. 13.- Obligaciones de la persona beneficiaria: m) La persona beneficiaria deberá redactar y dar a conocer en euskara o en las dos lenguas oficiales los escritos, anuncios, avisos y demás comunicaciones que publiquen en la actividad subvencionada, debiendo proceder de igual manera con la publicidad, bien sea oral o escrita. Asimismo, los mensajes emitidos por megafonía en actos concretos deberán transmitirse en euskara o en las dos lenguas oficiales. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse al justificar la realización de la actividad subvencionada."

Señala, Maribel Vaquero, que es lo que ellos están estableciendo.

Señala que la segunda dirección que quería apuntar es la moral en relación a la defensa del uso del euskera.

Toma la palabra M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua para señalar que a los particulares se les puede sugerir pero no obligar.

Toma la palabra Maribel Vaquero para señalar que le discutieron si era legal o no y que ella les contesta que sí es legal y que además lo razona.





## 2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007

M. Teresa Pagazaurtundua hartu du hitza, eta galdetu du zergatik ez duten itxoiten Eusko Jaurlaritzaren arrazoibideak idatziz izan arte.

Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta erantzun dio Euskara teknikariak egin zuela kontsulta Eusko Jaurlaritzan, eta onartu egingo dutela, eta nahi badute inpugna dezatela legezketasun arrazoiak argudiatuta.

M. Teresa Pagazaurtundua hartu du hitza, eta adierazi du ohiko praktikan modu batean egiteak ez duela esan nahi baloraziorik ezin egin dutenik. Adierazi du arrazoizkoena litzatekeela udalbatzarrera Eusko Jaurlaritzaren arrazoibideak idatziz edukitzean eramatea.

Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du idatziz edukitzeko denbora asko igaroko dela eta kontsulta egina dagoela. Adierazi du plana otsailaren 28a baino lehen onartu behar dutela, eta bozkatu egingo dutela.

Juan M. Tomasena hartu du hitza, eta adierazi du uste zuela izango zutela erantzuna idatziz.

Maribel Vaquerok erantzun dio erantzun hori bera ematen ari direla ahoz, eta Jon Lizasoren hitza sinetsi behar dutela edo ez.

Juan M. Tomasena hartu du hitza, eta adierazi du berak sinesten duela, eta idatziz edukitzea gustatuko balitzia ere, badakiela lege kontuak oso mantsoak direla. Amaitu du esanez planaren aldeko botoa emango duela.

M. Teresa Pagazaurtundua hartu du hitza, eta adierazi du ondo egongo zela Euskara teknikariak txosten bat egitea.

Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du teknikariak ez duela etortzerik izan, eta denon eskura utziko duela Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia.

M. Asuncion Guerrak hartu du hitza, eta

Toma la palabra M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua para preguntar por qué no se va a esperar a tener por escrito las consideraciones del Gobierno Vasco.

Toma la palabra Maribel Vaquero para contestarle que el técnico de euskara ya hizo la consulta en el Gobierno Vasco, que se va a proceder a su aprobación y que si quieren lo impugnen por motivos de ilegalidad.

Toma la palabra M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua para señalar que el hecho de que en la práctica habitual se haga de una forma no significa que no puedan hacer sus valoraciones. Señala que lo más razonable hubiera sido que una vez que se tuviera la consideración del Gobierno Vasco por escrito, se hubiera llevado al Pleno.

Toma la palabra Maribel Vaquero para señalar que para tenerlo por escrito pasa demasiado tiempo y que la consulta ya está realizada. Señala que el Plan hay que aprobarlo antes del 28 de febrero y que se va a someter a votación.

Toma la palabra Juan María Tomasena para señalar que pensaba que sí tendrían esa contestación por escrito.

Le contesta Maribel Vaquero señalando que les está dando esa misma contestación de forma oral y que o creen en la palabra de Jon Lizaso o no creen.

Toma la palabra Juan María Tomasena para señalar que él se lo cree aunque le hubiera gustado que estuviese por escrito y que sabe que la legalidad funciona de manera bastante lenta. Concluye señalando que va a votar a favor del Plan.

Toma la palabra M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua para señalar que hubiera estado bien que el técnico de euskara hubiera realizado un informe técnico.

Toma la palabra Maribel Vaquero para señalar que el técnico no ha podido venir y que deja al alcance de todos la jurisprudencia del Tribunal Supremo.



## 2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007

adierazi du ados dagoela M. Teresa Pagazaurtunduarekin, eta ez zaiola gustatzen esatea "eta onartuko dugu, eta kito". Adierazi du iritzia eskatu dietela, eta ematen ari direla.

Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du sentitzen duela tonuak mindu badu, baina batzordean kontsulta egiteko eskatu ziotela, egin dutela kontsulta, eta idatziz ekartzerik izan ez badute ere, legezkoa dela erantzun dietela. Adierazi du ez dagoela beste baterako uzteko astirik, otsailaren 28a baino lehen onartu behar dutelako eta bi egun falta direlako.

Ikusirik 2007ko otsailaren 16ko Hezkuntza. Euskara, Haur eta Gazte Saileko informazio batzordean gai hau eztabaidatu zela eta informazioa eman zela.

Eztabaidaren ostean, alkateak mozioa bozkatzea proposatu du. Eraitza hau izan da:

Aldekoak: 7 (6 EAJ-EA, 1 EB).  
Abstentzioak: 5 (4 PSE-EE, 1 PP).  
Kontrakoak: 0

Botazioaren ondoren, udalbatzak kideen gehiengo absolutuarekin hartu du honako

### ERABAKIA

**Lehena eta bakarra.-** Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartzea (2007-2008ko plan estrategikoa).

Toma la palabra M<sup>a</sup> Asunción Guerra para señalar que está de acuerdo con lo señalado por M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua y que no le gusta que le digan: "y lo vamos a aprobar y ya está". Señala que se les ha pedido su opinión y que la están dando.

Toma la palabra Maribel Vaquero para señalar que siente si el tono le ha ofendido pero que en la comisión se le pidió que hiciera la consulta, que han hecho la consulta y que, si bien no la han podido traer por escrito, les han contestado que es legal. Señala que no hay tiempo para dejarlo para otro día porque se tiene que aprobar antes del 28 de febrero y faltan dos días.

Visto que en la Comisión Informativa de Educación, Infancia. Euskara y Juventud celebrada el 16 de febrero de 2007 se trató e informó sobre este punto.


Tras el debate, el alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 7 (6 PNV-EA, 1 IU)  
Abstenciones: 5 (4 PSE-EE, 1 PP)  
En contra: 0

Tras la votación, el Pleno con el voto de la mayoría de los miembros que componen la Corporación ha adoptado el siguiente

### ACUERDO

**Primero y único.-** Aprobar el Plan General de promoción del uso del euskera (plan estratégico: 2007-2008).



**2007KO OTSAILAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 26 DE FEBRERO DE 2007**

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, goiburuan adierazten den eguneko bostetan, bukatutzat eman dute udalbatzarra, eta nik, Urnietako idazkariak hala ziurtatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las cinco del día indicado en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Nagore Alcorta Elorza  
Bitarteko idazkaria,



Sin.: Florentino Ugalde Atxaga  
Alkate-lehendakaria,

